


**ERRETIRO
AKORDIOA 2024
TEKAZEL**



1974-2024 • ZABALTZEN

ERRETIRO ARRUNTA

- ▶ **1) Betebeharrak**
- ▶ Berberak izango dira eguneko lanaldiaren murrizketa ordaindurako eta erretiroaren aurreko baimen ordaindurako eszedentzia bereziarekin.
- ▶ UPV/EHUn TEKAZELen kategoria bateko lan kontratudun finkoa izatea eta behin betiko lanpostu bat betetzen egotea edo behin-behineko atxikipena izatea, zerbitzu aktiboko administrazio egoeran edo lanpostua gordeta izatea dakarren beste edozeinetan, edo egonkortasuna aitortuta izatea.
- ▶ TEKAZELen kategoria bateko aldi baterako lan kontratuduna izanik, 6 urteko antzintasuna izatea UPV/EHUn zerbitzu efektiboak betetzen, eta lanpostuen zerrendako lanpostu huts bat betetzen egotea eskaria egiteko unean; edo, lanpostu huts batean egon ez arren, uste izatea langilea kontratatuta egongo dela erretiro arrunterako adinera heldu arte.
- ▶ Interesdunak erretiro arrunta eskatzeko aukera izatea, horretarako baldintzak betetzen dituelako, bat etorrita abuztuaren 1eko 27/2011 Legeko hogeigarren xedapen iragankorrean ezarritako taularekin (aurrerantzean, “erreferentziako taula”) edo taula hori aldatuko lukeen arautegian ezarritakoarekin.
- ▶ Neurri hauek hartzen dituen langileak nahitaez eskatu beharko du erretiroa 65 urte betetzean edo dagokion erretiro adinera heltzean (erreferentziako taulan aipatutakoa edo taula hori aldatuko lukeen arautegian aipatutakoa).



ERRETIRO ARRUNTA

63 urte eta 6 hilabete (edo ohiko erretiroa hartzeko adina baino urte eta erdi lehenago) bete dituzten pertsonak, ordaindutako baimena eskatu ahal izango dute Akordioan ezarritako baldintzetan.

▶ LANALDI MURRIZKETA

1. AUKERA

- ▶ 1575 ordu + 18 hilabeteko baimen berezia (6 hilabete ordainduak eta 12 hilabete GZ) + antzinasunagatiko opor eguneko baimen berezia + genero arrakalari lotutako baimen berezia.

▶ LANALDI MURRIZKETA

2. AUKERA

- ▶ 787,5 ordu + 787,5 ordaindutako 6 hilabetetan metatutako orduak + antzinasunagatiko opor eguneko baimen berezia + genero arrakalari lotutako baimen berezia



BORONDATEZKO ERRETIROA

- ▶ **1) Betebeharrak**
- ▶ Berberak izango dira eguneko lanaldiaren murrizketa ordaindurako eta erretiroaren aurreko baimen ordaindurako, eszedentzia bereziarekin hala badagokio:
- ▶ UPV/EHUn TEKAZELen kategoria bateko lan kontratudun finkoa izatea eta behin betiko lanpostu bat betetzen egotea edo behin-behineko atxikipena izatea, zerbitzu aktiboko administrazio egoeran edo lanpostua gordeta izatea dakarren beste edozeinetan, edo egonkortasuna aitortuta izatea.
- ▶ TEKAZELen kategoria bateko aldi baterako lan kontratuduna izanik, 6 urteko antzintasuna izatea UPV/EHUn zerbitzu efektiboak betetzen, eta lanpostuen zerrendako lanpostu huts bat betetzen egotea eskaria egiteko unean; edo, lanpostu huts batean egon ez arren, uste izatea langilea kontratatuta egongo dela borondatezko erretiro aurreratuko adinera heldu arte.



BORONDATEZKO ERRETIROA

- **64 URTE EDO ERRETIRO ARRUNTERAKO ADINERA HELDU BAINO URTEBETE LEHENAGO.**

63 urte eta 6 hilabete gainditu dituzten pertsonak ordaindutako baimena eskatu ahal izango dute 64 urte bete arte.

- Lanaldi murrizketa 1. aukera (1575 ordu) + 6 hilabeteko baimen berezi ordaindua + antzintasunagatiko opor eguneko baimen berezia + genero arrakalari lotutako baimen berezia.



BORONDATEZKO ERRETIROA

► 63 URTE EDO ERRETIRO ARRUNTERAKO ADINERA HELDU BAINO BI URTE LEHENAGO

61 urte eta 6 hilabete edo 62 eta 6 hilabete bete dituzten pertsonak ordaindutako baimena eskatu ahal izango dute Akordioan ezarritako baldintzetan.

- Lanaldi murrizketa 1. aukera (1575 ordu) + 6 hilabeteko baimen berezi ordaindua **edo** 18 hilabetekoa (6 hilabete ordainduak y 12 hilabete GZ) + antzinatasunagatiko opor eguneko baimen berezia + genero arrakalari lotutako baimen berezia



TEKAZEL LABORALAK ERRETIRO PARTZIALA ETA ERRELEBO KONTRATUA

- ▶ Lanaldi murrizketa 1. aukera (1575 ordu) + antzinasunagatiko opor eguneko baimen berezia + genero arrakalari lotutako baimen berezia + 3 edo 2 hilabeteko baimen ordaindua, iraungitako TEKAZELen III. Hitzarmen Kolektiboaren bigarren gehigarritik datorrena.



TEKAZEL LABORALAK

UPV/EHUko TEKAZELen III. Hitzarmen Kolektiboko Bigarren Xedapen Gehigarri deusestatuari lotutako baimen berezia.

- ▶ 1992ko urriaren 1ean bere zerbitzuak lan-kontratuko langile finko gisa ematea.
 - 1.- UPV/EHUⁿ 15 urtez zerbitzua eman badute 3 hilabeteko baimen ordaindua.
 - 2.- 10-15 urte bitartekoa izan bada 2 hilabeteko baimen ordaindua.
- Bateragarria da antzintasunagatiko oporrei lotutako baimen bereziarekin eta genero-arrakalarekin lotutako baimenarekin, 6 hilabeteko mugarekin.
- Baimen horiek (2. Puntuakoak) hartuko badira erretiroa baino lehenagoko baimenarekin eta eszedentzia bereziarekin, eszedentzia aldiaren hasieran hartu beharko dira, eta ordaindutako 6 hilabetei gehituko zaizkie kasuan kasuko egunak.



GENERO ARRAKALARI LOTUTAKO BAIMEN BEREZIA

Adin txikikoak edo mendekotasuna duten pertsonak zaindu ahal izateko lan bizitzan zehar eszedentziak eta lanaldi murrizketak eskatzeagatik.

10 urtetik gora izan beharko ditu beteta UPV/EHUren zerbitzura.

- ▶ Eszedentzia hartu bada adin txikikoak edo mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko.
- ▶ Hilabeteko baimen berezia eszedentzia urte bakoitzeko, eta gehienez ere 3 hilabete (ordainsari osoa).

- ▶ Lanaldia murriztu bada adin txikikoak edo mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko.
- ▶ Murriztutako ordu guztiak batuko dira eta ordu horiei dagozkien urteak kalkulatu dira. Horrela, hilabeteko baimen berezia emango da orduak batuta ateratzen den urte bakoitzeko, gehienez ere 3 hilabetera arte.

Bi baimen mota hauek bateragarriak dira, gehienez 3 hilabetera arte.



ANTZINATASUNAGATIKO OPOR EGUNEI LOTUTAKO BAIMEN BEREZIA

AÑOS ANTG.	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030
40 en adelante	60	56	52	49	46	42	39
39	56	52	49	46	42	39	36
38	52	49	46	42	39	36	33
37	49	46	42	39	36	33	30
36	46	42	39	36	33	30	27
35	42	39	36	33	30	27	24
34	39	36	33	30	27	24	21
33	36	33	30	27	24	21	18
32	33	30	27	24	21	18	15
31	30	27	24	21	18	15	13
30	27	24	21	18	15	13	11
29	24	21	18	15	13	11	9
28	21	18	15	13	11	9	7
27	18	15	13	11	9	7	5
26	15	13	11	9	7	5	3
25	13	11	9	7	5	3	2
24	11	9	7	5	3	2	1
23	9	7	5	3	2	1	0
22	7	5	3	2	1	0	0
21	5	3	2	1	0	0	0
20	3	2	1	0	0	0	0
19	2	1	0	0	0	0	0
18	1	0	0	0	0	0	0




ANTZINATASUNAGATIKO OPOR EGUNEI LOTUTAKO BAIMEN BEREZIA

- ▶ Baimen honi lotutako egunak lan egunak dira.
- ▶ Interesduna azken 10 urteetan UPV/EHUn zerbitzu efektiboak ematea beharrezkoa da.
- ▶ 2025. urtetik aurrera baimenari lotutako egunak gutxitzen doaz urte barruan hartzen direlako, baina nahi izanez gero, urte naturalaren barruan hartu beharrean, metatzeko aukera emango da, 2024. urtean antzinatasun tarte bakoitzean esleitutako opor egunen kopurua gainditu gabe.



TEKAZEL ERRETIROAK



TEKAZEL LABORALAK

ERRETIRO PARTZIALA ETA TXANDA KONTRATUA

Lanaldi murrizketa 1. aukera (1575 o) + Antzinatasunagatiko opor eguneko baimen berezia + genero arrakalari lotutako baimen berezia + 3 edo 2 hilabeteko baimen ordaindua, iraungitako TEKAZELen III. Hitzarmen Kolektiboaren bigarren gehigarritik datorrena

UPV/EHUko TEKAZELen III. Hitzarmen Kolektiboko Bigarren Xedapen Gehigarri deusestatuari lotutako baimen berezia.

- 1.- 1992ko urriaren 1ean bere zerbitzuak lan-kontratuko langile finko gisa ematea
- 2.- UPV/EHU 15 urtez zerbitzua eman badute 3 hilabeteko baimen ordaindua // 10-15 urte bitartekoa izan bada 2 hilabeteko baimen ordaindua.
- 3.- Bateragarria da antzinatasunagatiko oporrei lotutako baimen bereziarekin eta genero-arrakalarekin lotutako baimenarekin, 6 hilabeteko mugarekin.
- 4.- Baimen horiek (3. Puntuakoak) hartuko badira erretiroa baino lehenagoko baimenarekin eta eszedentzia bereziarekin, eszedentzia aldiaren hasieran hartu beharko dira, eta ordaindutako 6 hilabetei gehituko zaizkie kasuan kasuko egunak

